

Liburutegiaren Eguna ospatuko dute asteartean Elgoibarren

Hainbat zozketa eta Joseba Ramirez ipuin kontalariaren emanaldia izango dira

Elgoibar.

Elgoibarko udal liburutegiak Liburutegiaren Eguna ospatuko du datorren asteartean. Hori dela eta, egun horretatik aurrera hainbat zozketa egingo dituzte bazkideen artean.

Liburutegiko arduradunen esanetan, "liburu bat bueltatzerakoan irakurle bakoitzak fitxa txiki bat beteko du eta jasotzen ditugun fitxa guztien artean liburu sorta ederra eta azaroan herrian burutuko diren antzerki saioetarako bi sarrera zozketatuko ditugu".

Umeen artean Txanogorritxo eta marrubi zaporeko gaztainak izeneko antzerki emanaldirako sarrerak zozketatuko dituzte, eta nagusien artean El Caserio zartzuela ikusteko txartelak.

Ipuin kontalaria.

Liburutegiaren Eguna ospatzeko antolatutako ekitaldien artean, bost urteko hurrei zuzendutako ipuin kontaketa ere egongo da hilaren 26an. Oraingoan, Joseba Ramirez ipuin kontalaria izango da Elgoibarko udal liburutegian, eta 45 minutuko iraupena izango duen ipuin kontakizuna eskainiko du. >j.l.